

MASTER AMAIERAKO LANA (MAL) EGITEKO ETA DEFENDATZEKO GIDA



**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako
IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA Unibertsitate Masterra.**

MASTERREKO KOMISIO AKADEMIKOA

AURKIBIDEA

Master Amaierako Lanaren (MAL) xedea eta helburuak	3
Gaia, ikerketa ildoak eta proposamenak zehaztea	4
Lana hautatzeko prozesua eta prozedura	7
Lanaren egitura eta lana idazteko eta aurkezteko jarraibideak	8
Zuzendariaren eginkizunak eta betebeharrak.....	13
Defentsa baldintzak.....	14
Ebaluazioa eta defentsa	15

Master Amaierako Lanaren (MAL) xedea eta helburuak

Master Amaierako Lana (MAL, aurrerantzean), masterreko irakasle baten zuzendaritzapean bakarka egin behar den lan akademiko bat da, 6 ECTS kredituko karga duena (150 ordu). Ikasleak ikerketa hastapeneko edo hezkuntza berrikuntzako lan bat egin behar du, *Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako irakaskuntza esparrua erreferentzia bezala hartuz*. Hain zuzen, irakasle berriek beren ibilbide profesionalaren hasieran duten jarduera arruntarekin zuzenean loturiko lana.

MALaren xede nagusia, hortaz, masterreko ikasleek masterreko moduluetan eta gaitetan landu diren jakintzak eta gaitasunak bereganatu dituztela erakustea da, arreta berezia jarri praktiken fasean, eta agerian uztea prest daudela hezkuntza ikerketa eta berrikuntzako jardueretan hasteko.

Helburu espezifikoak, aldiz, ikasle bakoitzak azterlan bat idatzi eta aurkeztea da, eta lan hori epaimahai baten aurrean defendatzea, irakaskuntza lanerako behar diren gaitasunak erakusteko.

HEZKUNTZA ORIENTAZIOA espezialitatean, kontuan izan behar da orientatzaileak ikastetxe batean duen eginkizuna EZ dela ikasgelan zuzenean irakastea. Hori dela-eta, MALak ikerketa edo hezkuntza berrikuntzako prozesu batera egokitu behar badu ere, gaitegiak ez dio erreparatu behar soil-soilik espezializazioari dagozkion irakasgaien plangintza, irakaskuntza eta ebaluazioan esperientzia hartzeari (Masterraren irakaskuntza espezialitateen gaitasuna); horrekin batera, kontuan izan behar ditu ere orientatzailearen eginkizun orokorrak:

- Aholkularitza, laguntza eta koordinazioa eskaintzea ikastetxeko irakasleei, eta tutoreei bereziki, hezkuntza orientazioarekin eta orientazio pertsonal eta profesionalarekin lotutako zereginetan.
- Aniztasunaren tratamenduari lotutako gaiei ekitea, baita ikasteko zailtasunak detektatu, diagnostikatu eta gainditzearekin zerikusia duten gaiei ere.
- Ikasleen ebaluazio psikopedagogikoetan parte hartzea.
- Ikastetxea beste erakunde batzuekin (Berritzeguneak, adibidez) eta kanpoko laguntzarekin lotzea.

MALa bakarka egin behar da, originala izan behar du, argi eta garbi orientatuta egon behar du irakaslanera, eta BBLH masterraren barnean egin behar da, aurrez ezarritako

egutegiaren arabera (bigarren lauhilekoan edo, gutxienez, Modulu Generikoa egin ondoren). Ezin izango dute egile batek baino gehiagok batera sinatu, eta ez da onartuko ikasleak beste ikasketa batzuetan (graduak edo graduondokoak) egin dituen antzeko lanekin bat datorren lanik.

- Ikasleak Masterraren Ikasketa Planean jasota dauden gainerako irakasgaien kreditu guztiak gainditu arte, ezin izango da MALa aurkeztu eta ebaluatu.
- Bestetik, indarrean dagoen arautegiaren arabera, MALa lan intelektuala da, eta Jabetza Intelektualaren legeak babesten du.

Gaia, ikerketa ildoak eta proposamenak zehaztea

MALa, oro har, hezkuntza berrikuntza edo ikerketa proposamen batean oinarrituko da, Praktiken Txostenetik bereizitako proposamena.

Argi kokatuta egon beharko du Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergo, Lanbide Heziketa edo Hizkuntzen **Irakaskuntzaren alorrean**, eta horrek eragina du bai helburuetan eta ikuspegiari, bai lanaren iturrietan eta garapenean. Hortaz, ez da onartuko diziplina gaien edukari berari loturiko gai orokorrik, masterraren xede diren hezkuntza mailetan argi kokatzen ez den lanik, edo Haur Hezkuntzari, Lehen Hezkuntzari, unibertsitate ikasketei edo ikasketa ez-arautuei loturiko iturri, postulatu, printzipio eta/edo datuetan oinarritutako lanik.

Lanari berari dagokionez, berrikuntza arlokoa edo ikerketa arlokoa izan (datu enpirikoetan, inkesta lanetan, landa lanetan... oinarritzen diren lanen kasuan batez ere), gomendatzen da MALaren zuzendariek, ikasleekin batera, proiektua denbora tarte labur batean eta soilik 6 ECTS kredituko esleipenarekin egiteko aukerari buruzko estimazio errealista egitea. Edonola ere, irakasle berriek testuinguru profesional batean onartzeko moduko MALa izan behar du, alde batera utzirik prestakuntza handiagoa behar duten munta handiagoko ikerketak.

Masterraren gaitegi eta ikerketa ildo nagusiak hainbat alorretan bana daitezke:

I. Irakaskuntzan eta ikaskuntzan diharduten eragileak: irakasleekin, ikasleekin, familiekin, ikastetxeekin, gizarte eragileekin eta komunitate eragileekin erlazionatutako gaiak: Practicumean eginiko irakaskuntza arloko esku-hartzeak analizatzea; Irakasgaiari eta dagozkion mailetan esanguratsuenak diren praktika profesionalak aztertzea... Gainera, kontuan hartu behar dira ere zeharkako gaitegiak (Modulu Generikoa) eta Hezkuntza Orientazioko gaitegi espezifikoak; hala nola baliabide eta laguntza zentroak (Berritzegune, CEIDA, Itsuentzako baliabideen zentroa...); kabinete psikopedagogikoak; Hezkuntza Ikuskaritza; hainbat kolektibori laguntzeko elkarteak (ezgaitasunak, gutxiengo etnikoak, etab.); orientazio sailen funtzionamendua eta antolakuntza; eta ikaskuntza komunitateak.

II. Irakaskuntza eta ikaskuntza ekintzak: estrategia metodologiko eta didaktikoekin lotutako gaiak, jakintza arloen arabera: Ikastetxe bateko ikasleen aniztasunaren tratamendurako neurriak aztertzea (neurri orokorrak eta arruntak nahiz apartekoak) eta hobekuntza proposamenak; diziiplina jakin bati dagozkion ebaluazio tresnak diseinatzea; hezkuntza esparruetan informazioa lortzeko tresnak diseinatzea; lan teoriko-praktikoak egitea Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza egoeren diseinu eta azterketari buruz; hobekuntza neurriak aztertzea eta proposatzea ikastetxeetan erantzun globala behar duten hezkuntza gaiak lantzeko (hala nola eskola porrota, absentismoa, bizikidetza edo kultura arteko hezkuntza); ikasturte bateko tutoretza lanaren alderdi garrantzitsuenak planifikatzea; esku-hartze didaktikoko segmentu bat planifikatzea, testuinguru analisi baten ondoren gaiaren curriculumak behar dituen egokitzapenak izango dituen... Era berean, kontuan hartu behar dira ere zeharkako gaiak (Modulu Generikoa) eta Hezkuntza Orientazioko gaitegi espezifikoak; hala nola hezkuntza beharrak detektatzea eta diagnostikatzea (behar bereziak edo ez); aholkularitza eskaintzea irakaskuntza lanak eta tutore lanak garatzeko; hezkuntza ekintza espezifikoak diseinatzea eta horiek martxan jartzea; baliabide bereziak esleitzeko prozedurak; hezkuntza prozesuen ebaluazioa; orientazioa ikasleei eta familiei, etab.

III. Hezkuntza tresnak: dokumentazioarekin, legediarekin, hezkuntza testuekin eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiekin lotutako gaiak: ikastetxe baten erakunde planen berrikuspen protokolo bat aztertzea eta, hala dagokionean, proposatzea: Ikastetxeko Hezkuntza Proiektua, Tutoretza Plana, Orientazio Akademiko eta Lanbide Orientazioko Plana, Aniztasunaren Arreta Plana, Bizikidetza Plana...; orientazio sailaren esku-hartze espezifikorako materialak diseinatu, aztertu eta martxan jartzea; orientazio akademiko eta lan orientazioko programak; ikaskuntza zailtasunetarako baliabide teknologikoak; zailtasunen prebentziorako programak edo planak diseinatzea; lankidetzatza diagnostiko psikopedagogikoan. Hezkuntza materialak diseinatu eta/edo aztertu eta/edo ebaluatzea; hezkuntza baliabideei eta gaian diharduten profesionalek sarean egiten duten lanari buruzko txostena egitea; espezialitatearen edukien transposizio didaktikoaren adibideak aztertzea; hezkuntza ikerketen erreplikak; etab.

Ildo tematikoak, alde horretatik, **BBLH** masterreko irakasleek (espezialitateetako eta Modulu Generikoetako irakasleek) ikasturte akademiko bakoitzean egingo dituzten proposamen zehatzetan gauzatuko dira.

Lana errazteko eta MALren diseinuan (edo haren zati batzuetan) egin ohi diren hutsegiteak saihesteko, MALa zer den eta zer ez den adierazten du hurrengo taulak:

EZ da...	Bada...
Ikasleentzako erabilera pribatuko lana.	Hezkuntza zientzietan aditua den publiko batentzako lana.
Soilik teorikoa eta generikoa den lana.	Testuinguru batean kokatutako lana, bibliografia sistematikoki berrikustea eskatu

	eta inplementaziorako asmo kontziente bat duena*.
Jada eginiko beste lan batzuen “ebaki-itsatsi” lana (1).	Lan originala, berez zentzua duena (1).
Errealitate printzipioekin bat ez datozen aldaketa handiak eragiten dituen lana.	Aplikazio zehatzak eta bideragarriak (etorkizuneko inplikazioak) dituen proposamena.
Hainbat atalen batura ez-konexua.	Elkarrekiko koherenteak diren atalek osatutako lana (oinarri teorikoa, metodologia...).
Daturik gabeko lana edo datuak itxuraz logikarik gabe eskaintzen dituen (2).	Prozedura estandar baten arabera datuen analisi sistematikoa eskatzen duen produktua (2).
“Oharrez” osatutako testua.	Hainbat egileren ikuspuntuetatik argudiatutako testua, ikasleak bere helburuen arabera egituratzen duena. Horrek erreferentzia bibliografikoak eskatzen ditu lanaren amaieran.
Unitate Didaktiko huts bat(3).	Esku-hartze bat eduki dezakeen ikerketa edo berrikuntza proiektua (3).
Praktiken txosten huts bat(4).	Ikasturtean zehar ikasitakoa eta praktikaldian bildutako informazioa barne har ditzakeen lana (4).

Aurreko puntuei dagokienez, honako hau argitzea komeni da:

* **Adimen Artifizial Generatiboaren (AAG) erabilera** orokortzen ari da goi-mailako hezkuntzan. Horren aurrean, EHuko Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatetik AAGaren erabilera arduratsua egitea sustatzen da. Horrek esan nahi du: (1) erabili den tresna eta modua argi eta garbi adierazi behar direla (izena, bertsioa, data...), eta (2) AAG laguntza-tresna gisa baliatu behar dela adierazi behar da, beti ere makinak sortutako edukiak egiaztatuz eta norberaren ekarpen pertsonalarekin osatuz (sarrerak edo *prompts*-ak eta irteerak adieraziz adibidez). Erabilera arduratsua ez betetzeak (adibidez, erabilera ez adieraztea edo edukiak bere horretan kopia eta erabiltzea) UPV/EHuren plagio-protokoloa aplikatzea lekarke, dagokion irakasgaiari izan ditzakeen ondorioekin.

(1) Arreta berezia izan behar da gai honetan plagio kasuekin. **Plagioa** da besterenak diren lanak, ideiak edo hitzak norberarenak bezala erabiltzea, **agerian adierazi gabe** nondik lortu den informazioa. Esate baterako plagiotzat hartzen da:

- Lan bat kopiatzea eta norberak egina bezala aurkeztea: berdin dio lana osorik kopiatu bada edo zati bat baino ez. Lanak egile eskubideak baditu, **berdin dio zatitxo bat edo zati handia kopiatu izana**, berdin-berdin da plagioa.

- Lanean testu bat txertatzea **egilearen aipamenik egin gabe**.
- Lanean beste batzuen esaldiak, paragrafoak edo ideiak sartzea jatorria edo egilea aipatu gabe.

MALaren aurkezpenean plagiorik antzemanaz gero, epaimahaiak suspentso kalifikazioa (0,0) jarriko dio lanari.

Arazo hau ekiditeko informazio hau irakurtzea gomendatzen da biziki:
<https://www.ehu.eus/eu/web/biblioteca/plagioa-eta-onestasun-akademikoa>

(2) Datuak izan daitezke kualitatiboak (dokumentuak, legeak, hezkuntza programak, unitate didaktikoak, testuak, elkarrizketak...) edo kuantitatiboak (inkestak, eskalak...), eta prozedura estandarizatu eta sistematiko baten bidez aztertu behar dira.

(3) Berrikuntzaren ikuspegitik, MALak esku-hartzeen analisia barne har dezake. Halaber, esku-hartze original baten proposamenarekin amaitu daiteke, edo jada existitzen den esku-hartze batean egin litezkeen hobekuntzekin. Kasu horretan, lanaren aurreko atalek (oinarri teorikoa, datuen analisia, emaitzak...) proposamen horren oinarri izan beharko dute.

(4) MALa zentroan eginiko praktikekin lotzeak lanaren garapena erraztu badezake ere, komeni da gogoratzea MALak helburu jakin batzuk dituela, argi eta garbi bereizitako lan egitura bat eskatzen dutenak.

(5) MALa ikerketa lan bat bada, oinarri etikoak zaintzeko ardura ikaslearena da.

Lana hautatzeko prozesua eta prozedura

Irakaslegoak MALean garatu daitezkeen gai edo ildoak eskainiko ditu. Ikaslegoak gaien artean aukeratu eta eskaera zerrenda bat egin ahal izango du, ondoren esleipen prozesua hasiko delarik.

- Ikasle bakoitzak Master Amaierako Lanen gai kopuru bat eskatu beharko du (25 inguru), GAURen bidez, bere lehentasunen arabera, horretarako ezarriko den epean.
- Gaia/ildoak eskatu ahal izango du, dagokion zuzendariarekin, bai ikasten ari den Espezialitatekoa, bai Modulu Generikokoa. Gai eskaera egiterakoan, kontutan izan Generikoko gaiak espezialitate guztiei eskaintzen zaiela (Orientazioan ezik, non espezialitate honetako irakasleek bakarrik egiten duten eskaintza), eta beraz, eskaera kopurua espezialitatekoa baina altuagoa izaten dela; hortaz, gaien eskaera kopuru handia egitea gomendatzen da (25 inguru), eta badaezpada ere, espezialitateko gai batzuk ere sartzea, generikoko gai guztiak esleituta gera baitaitezke ikasleari bere txanda iritsi aurretik.
- Esleipena egin ondoren, moldaketak onartzen dira hasierako gai edo ildoarekiko

zuzendariaren adostasunarekin.

- **Ikasleak** berak ere proposatu ahal izango du gai bat, beti ere, masterreko irakasle baten oniritzia lortzen badu bere zuzendaritzapean garatzeko. Irakasleak hitzartua bezala sartuko du GAUREn, ikaslea ere zehaztuz. **Ezingo da ikaslego guztiarentzat eskaini eta GAUREn publikatua izango den gai bat hitzartu.**

Natur Zientziak eta Matematikako eskaintzaren kasuan, afinitateagatik, **Fisika arlotik** ere hautatu ahal izango dute zuzendaria **Teknologiako ikasleek**; Giza eta Gizarte Zientzien espezialitateko **Ekonomia Zientzietako ikasleek**, **Matematika arlotik**.

Hezkuntza Orientazioko eskaintzaren kasuan, bere Modulu Generikoa duen espezialitatea izanik, espezialitate honetako irakasleek eskaintako proposamenen zerrendatik aukeratuko dute ikasleek.

Gaitegiaren eta lanaren orientazioaren egokitasuna bermatzeko, proposamenak espezialitatearen koordinatzailearen oniritzia ere izan beharko du. Oniritzirik ez dagoenean, e-mail bana bidaliko die MALaren zuzendariari eta ikasleari, zergatia azaltzeko. Hori dela eta, koordinatzaileak uste badu lanaren planteamenduak zehaztasun handiagoa behar duela, iruditzen bazaio lanak ez diela behar bezala erantzuten masterrean finkatutako helburuei, edo uste badu zerbaitek (denbora mugak, ikasleen gaitasunek, behar adina datu adierazgarri eskuratzeko zailtasunek, etab.) arriskuan jar dezakeela lanaren garapen egokia, lana zehazteko, berraztertze edo birformulatzeko eskatuko die ikasleari eta tutoreari. Horren inguruan sortutako edozein desadostasun Masterraren Batzorde Akademikoak ebatziko du.

Behin eskaerak jasota eta alderatuta, esleipena ikasleen **sarrerako notaren arabera** egingo da, nota altuenetik hasita. Bere txanda iristerakoan, ikasleak egindako eskaeran bere lehentasun zerrendan libre dagoen lehena esleitu zaio.

MALaren tutoretza saioak aurrez aurrekoak dira hasiera batean. Hortaz, irakaslea dagoen zentroan egingo dira. Irakaslearekin adostuz gero, online edo posta elektronikoz ere zuzendu ahal izango da MALa.

Lanaren egitura eta lana idazteko eta aurkezteko jarraibideak

MALak antolakuntza eta aurkezpen egitura egonkor bat du, eta ikasle bakoitzak, zuzendariaren laguntzaz, egitura hori bete behar du, zeregina hobeto garatzeko. Hala eta guztiz ere, kontuan izanik lana zer arlori lotuta dagoen (ikerketa ala berrikuntza), bi egitura bereizten dira, eta edukia nabarmen aldatzen da aztertutako gaiaren edo MALaren garapen mailaren arabera.

IKERKETA LANA EGITURATZEKO JARRAIBIDEAK

- Azal-orria: masterraren izena, espezialitatea, Master Amaierako Lanaren izenburua, egilea (izena eta bi abizenak), lanaren zuzendaria eta ikasturtea (atzealdea hutsik). Argazkia, aukeran.
- 200-300 hitzeko laburpena, lana idatziko den hizkuntzan (euskara edo gaztelania), eta itzulpena ingelesera (abstract). Lana ingelesez bada, abstracta beste bi hizkuntzetako batean (hasi bakoitian; behar izanez gero, atzealdea hutsik).
- Aurkibidea, zenbakitua (ez sartu atal gisa ez azal-orria ezta aurkibidea ere) (hasi bakoitian; behar izanez gero, atzealdea hutsik).
- Sarrera: motibazioa, helburuak, lanaren egitura. Helburua/Xedea. Lortu nahi diren helburuen edo planteatutako arazoaren definizioa. Gaiaren interesa eta egokitasuna. Irakasle lanbidearekin duen lotura. MALren aurkezpen orokorra, atal segidaren ikuspegi osoa emanez (hasi bakoitian).
- Gaiaren egungo egoera eta oinarri teorikoak (aurreko atalaren ondoren; ez hasi beste orrialde batean).
- Metodologia. Ikerketa galderak edo hasierako hipotesiak, erabilitako metodologiaren arabera (kuantitatiboa, kualitatibo edo mistoa). Diseinua, informazioa biltzeko prozedurak eta haren analisia, azterketako parte-hartzaileak, etab. (dagokionaren arabera) (aurreko atalaren ondoren; ez hasi beste orrialde batean).
- Emaizen analisia eta interpretazioa (aurreko atalaren ondoren; ez hasi beste orrialde batean).
- Ondorioak: lanaren eduki garrantzitsuenen aurkezpena, mugak, eta etorkizuneko lanetarako inplikazio posibleak (aurreko atalaren ondoren; ez hasi beste orrialde batean).
- Eskertza: eskertza adierazi behar izanez gero, bildu paragrafo labur batean (aurreko atalaren ondoren; ez hasi beste orrialde batean).
- Bibliografia: lana egiteko erabili diren bibliografia erreferentziak bildu behar dira ordena alfabetikoan, APA arauak erabilita (aurreko atalaren ondoren; ez hasi beste orrialde batean).
- Eranskinak: (eranskinik izanez gero, lanaren amaieran bilduko dira: informazioa, galdesortak, ikasleen lanen laginak, materialak...) (hasi bakoitian).

BERRIKUNTZA LANA EGITURATZEKO JARRAIBIDEAK

- Azal-orria: masterraren izena, espezialitatea, Master Amaierako Lanaren izenburua, egilea (izena eta bi abizenak), lanaren zuzendaria eta data (atzealdea hutsik). Argazkia, aukeran.
- 200-300 hitzeko laburpena, lana idatziko den hizkuntzan (euskara edo gaztelania), eta itzulpena ingelesera (abstract). Lana ingelesez bada, abstracta beste bi hizkuntzetako batean (hasi bakoitian; behar izanez gero, atzealdea hutsik).
- Aurkibidea, zenbakitua (ez sartu atal gisa ez azal-orria ezta aurkibidea ere) (hasi bakoitian; behar izanez gero, atzealdea hutsik).
- Sarrera: motibazioa, helburuak, lanaren egitura. Helburua/Xedea. Lortu nahi diren helburuen edo planteatutako arazoaren definizioa. Gaiaren interesa eta egokitasuna. Irakasle lanbidearekin duen lotura. MALren aurkezpen orokorra, atal segidaren ikuspegi osoa emanez (hasi bakoitian).
- Gaiaren egungo egoera eta oinarri teorikoak: iturri esanguratsuenen analisia; aurreko esperientzien analisia; lana egiteko irizpide egokien laburpena; gaiaren mugak erreferentziako curriculum dokumentuetan (aurreko atalaren ondoren; ez hasi beste orrialde batean).
- Esku-hartze didaktikoko edo aplikazio praktikoko proposamena: helburuak, deskribapena, aplikazio metodologia, proposamenaren helburuen eta erreferentziazko curriculum dokumentuen arteko egokitzapena eta erlazioa, materialak eta baliabideak, proposamenaren arrakasta mailaren ebaluazio irizpideak, etab. (aurreko atalaren ondoren; ez hasi beste orrialde batean).
- Eztabaida: proposamenean aplikatutako printzipioen xehetasuna eta aurretik aipatutako curriculum aginduekin eta oinarri teorikoekin duten erlazioa; hala dagokionean (hau da, proposamena egitasmo pilotu gisa aplikatu denean testuingururen batean), emaitzen aurkezpena eta eztabaida; proposamenaren izaera berritzaileari buruzko gogoeta; zailtasun posibleei eta horiei aurre egiteko moduari buruzko eztabaida; etab. (aurreko atalaren ondoren; ez hasi beste orrialde batean).
- Ondorioak: lanaren eduki garrantzitsuenen aurkezpena, ekarpen originalen sintesia, mugak, eta etorkizuneko lanetarako inplikazio posibleak (aurreko atalaren ondoren; ez hasi beste orrialde batean).
- Eskertza: eskertza adierazi behar izanez gero, bildu paragrafo labur batean (aurreko atalaren ondoren; ez hasi beste orrialde batean).
- Bibliografia: lana egiteko erabili diren bibliografia erreferentziak bildu behar dira

ordena alfabetikoan, APA arauak erabilita (aurreko atalaren ondoren; ez hasi beste orrialde batean).

- Eranskinak (eranskinik izanez gero, lanaren amaieran bilduko dira: informazioa, galdesortak, ikasleen lanen laginak, materialak...) (hasi bakoitian).

LANA IDAZTEKO ETA AURKEZTEKO ORIENTABIDEAK

Hizkuntza: MALa euskaraz, gaztelaniaz edo ingelesez idatzi ahal izango da, ikaslea eta zuzendaria ados jarrita.

Lanak bertsio digitalean aurkeztuko dira, PDF formatuan. MALren ezaugarrien edo bildutako ebidentzia moten arabera beharrezkoa balitz, eranskinak gehitu ahal izango dira beste euskarri fisiko batzuetan.

Lanak 20 orri izango ditu gutxienez, eta 40 gehienez (25.000-50.000 karaktere inguru zuriunerik gabe), eranskinak aparte. Hau da, 40 orri irakurritz lanaren nondik norakoa ulertu ahal izatea espero da, funtsezko informazioa 40 orri horietan jarritz, eta osatuz eraskinetan dagoen informazioarekin.

Orrialdeak era korrelatiboan zenbakituko dira (azala eta aurkibidea ez dira zenbakituko).

Letra mota eta tamaina: Verdana, 10 puntu.

Lerroarte: 1,5 (lerro hutsik gabe paragrafoen artean). Lerro huts bat utziko da paragrafo baten eta ondoren datorren izenburuaren artean, eta, halakorik balego, paragrafo bereiz batean jasotako aipamen luze baten hasieran eta amaieran.

Lerrokatze justifikatua testu osoan (oin oharrak barne).

Marjinak: 3 cm, goiko eta ezkerreko marjinetan; 2,5 cm, beheko eta eskuineko marjinetan. Testu prozesatzaileenak ere erabil daitezke: 2,54 cm lau marjinetan.

Koska erabiliko da (0,5 eta 1,25 cm artean) paragrafo berri baten hasieran eta aipamen luzeetan.

Letra etzana erabiliko da liburuen eta beste agiri batzuen izenburuak nabarmentzeko, eta beste hizkuntza batzuetako hitzak idazteko.

Azpirarra erabiliko da atalen izenburuak eta goiburua nabarmentzeko.

Letra lodia izenburuetan erabiliko da.

Izenburuak zenbakitu egingo dira hierarkikoki, haien edukia hobeto ulertzeko. Letra lodiz idatziko dira, ezkerretara lerrokatuak.

Erreferentzia bibliografikoak ordena alfabetikoan kokatu behar dira. Egile baten erreferentziak argitalpen urtearen arabera ordenatzen dira, zaharrenetik berrienera. Egile bakarra duen erreferentzia hainbat egile dituen eta abizen berarekin hasten den beste erreferentzia baten aurretik jartzen da. Egile batek urte berean argitaratutako erreferentzia bat baino gehiago dituenean, bereizi egiten dira letra minuskulak ipiniz argitalpen urtearen ondoan eta parentesia itxi aurretik. Zortzi egile edo gehiago direnean, lehenengo seiak aipatzen dira; ondoren, hiru etenpuntu eransten dira, eta azken egilearen izena.

Testuan kokatzen diren aipamenen kasuan, egileak bi direnean, biak aipatzen dira beti. Egileak hiru edo gehiago direnean, lehenengo egilea aipatu eta "et al." esapidea eransten da. Adibide batzuk azaltzen dira ondoren:

Liburua:

Pérez, R. (1990). *Cambio conceptual*. Landa.

López, C., Mora, L., eta Fernández, M. (1991). *Aprendizaje*. Sosa.

Liburu kapitulua:

Lukin, F. (1993). Los contenidos curriculares, en H. Hernández (Ed.), *La escuela a examen* (32-60 or.). Nervión.

Aldizkariko artikulua:

Idiakez, I. (1995). Instrucción y emoción. *Intercambio Científico*, 31(6), 16-24.

Dokumento elektronikoa, internet loturak: Agiria zehatz identifikatu ondoren, URLa adierazi behar da; kontsulta data soilik deskribatzen den materiala denborarekin alda baldin badaiteke adierazi behar da (wikiak, egunkariak, web orrialde zehatz batzuk):

Artikulu elektronikoa:

Álvarez-Rojo, V. B., Romero-Rodríguez, S., Gil-Flores, J., Rodríguez-Santero, J., Clares-López, J., Asensio-Muñoz, I., . . . González-González, D. (2011). Necesidades de formación del profesorado universitario para la adaptación de su docencia al espacio europeo de educación. *Relieve*, 17(1), 1-22. Hemen eskuratua: https://www.uv.es/RELIEVE/v17n1/RELIEVEv17n1_1.htm

Bestalde, APAk ere erregulatzen ditu nola jarri behar diren erreferentziak AA/IAtik sortutako testuak. Hemen dituzue adibide batzuk:

<https://apastyle.apa.org/blog/how-to-cite-chatgpt>
<https://biblioguias.webs.upv.es/bg/index.php/es/citaria>

MALetan APAren araua jarraitu behar denez, hor zehaztutako jarraibideak jarraitu behar dira

AA/IA erabilera zuzena egiteko.

Zuzendariaren eginkizunak eta betebeharrak

MALaren zuzendariaren lehen zeregina bere ikerketa ildoak edo hezkuntza berrikuntzako gaia(k) zehaztu eta eskaintzea da. Kontuan izanik bere jakintza arloa, bere ikasleen espezialitatea eta ikerketan, berrikuntzan eta lanbidean duen esperientzia, zuzendariak argi eta labur deskribatuko ditu bere ikerketa edo berrikuntza ildoaren/ildoen epigrafea/epigrafeak (1 edo 2 ahal izanez gero). Gainera, MALa lantzeko eta idazteko hizkuntza(k) definitu (euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa) eta aurrez aurreko tutoretza zer campusetan egingo den adieraziko du.

Irakasleek Master Amaierako Lanen zuzendaritzarako proposatutako ikerketa ildoen edo hezkuntza berrikuntzako gaien eskaintza GAUR plataforman jasoko da.

MAL bat zuzentzen duten irakasleen eginkizunak, ikaslearekin egin beharreko lanari dagokionez, fase hauetan garatzen dira:

A) 1. fasea edo Hasierako fasea: Sakonago azter daitezkeen irakaskuntza arloko gai eta arazo garrantzitsuak proposatzea ikasleari. Ikasle bakoitzak aldeztu aurretik barneratutako gaitasunak erabili beharko ditu. Fase honetan, masterrean matrikulatu diren eta eskaintutako gai eta ikerketa edo berrikuntza ildoei buruzko informazioa eskatu duten ikasle guztiei erantzun zaie.

B) 2. fasea edo Elaborazio fasea: Ikaslearen lanaren zuzendaritza eta jarraipena. Orientazioa eta tutoretza eskainiko zaizkio, eta egutegia bete eta beteaziko da zorrotz. Hiru tutoretza saio egingo dira gutxienez zuzendariaren eta ikaslearen artean.

MALa burutua dagoenean, eta zuzendariak defendatzeko moduan dagoela adieraztean ikasleari, honek MALaren defentsa eskaria egingo du GAUREn, eta zuzendariak berretsi egingo du, edo aldi, defentsarako bere oniritzia ez duela adieraziko dio ikasleari, bere erabakia justifikatuz eta hobetu beharreko alderdiak adieraziz.

- MALak lanean eskuratu diren datuen isilpekotasuna errespetatu behar du, edo horiek zabaltzeko baimena lortu.
- Lan batek epaimahaiaren aurrean defendatu ahal izateko, erabat amaitua, berrikusia eta orraztua egon behar du.
- Lana prozesuaren amaieran entregatzen denean eta ezin izan denean haren jarraipenik egin, zuzendaria ez da haren tutoretza lana egitera behartuta egongo.

Laburbilduz, zuzendariaren eginkizunak dira:

- ✓ Ikasleak proposatutako gaien egokitasuna baliozkotzea, eta haren autonomia eta ekimena bultzatzea; ikasleak helarazten dizkion lan aurrerapenak aztertzea, eta MALak programan ezarritako gutxieneko kalitate estandar akademikoak betetzeko behar diren jarraibideak eta orientazioak ematea.

Ez dira zuzendariaren eginkizunak:

Bilaketa bibliografikoak egitea ikaslearentzat; lan erritmoak eta aurkezpen epeak gogoraraztea; ortografia zuzenketak, idazketa zuzenketak edo formatu zuzenketak egitea ikasleak aurkeztutako dokumentuetan; plagio arazorik egon daitekeen ikustea; gutxieneko elaborazio mailarik gabeko zirriborroak onartzea. Zeregin horiek guztiak egilearen erantzukizun dira.

- ✓ Alde horretatik, dokumentuaren elaborazio eta idazketan eskurik ez sartzeko eskatzen zaie zuzendariari, ikaslearen kalifikazioaren zati bat lanaren kalitatean oinarritzen baita. Era berean, oniritzirik ez emateko ere aholkatzen zaie, lana elaborazio eta idazketa kalitate apalekoa denean.

C) 3. fasea edo Ebaluazio eta kalifikazio fasea: Ikasleekin egin beharreko lan faseak amaitzean, ebaluazioarekin eta kalifikazioarekin lotutako eginkizunak hasten dira MALaren zuzendariarentzat, berak zuzendutako lanetan eta beste irakasle batzuek zuzendutakoetan. Eginkizun horiek dira:

- 1) Posta elektronikoz, **"MALaren egokitasunari buruzko txostena"** dokumentua (1go Eraskina) igortzea epaimahaiko kideei, zuzendutako MALarekin batera.
- 2) Esleitu zaizkion epaimahaietan parte hartzea eta kalifikazio lanak egitea.

Defentsa baldintzak

Aurretik adierazitako zereginak bete eta epeak amaitu ondoren, MALaren defentsa egiteko ordua iristen da. Defentsa publikoa izango da, epaimahai baten aurrean, eta baldintza batzuk bete beharko dira horretarako:

- a) Masterraren Ikasketa Planeko beste irakasgaiei dagozkien kredituak gainditzea.
- b) MALaren kopia bat (PDF) masterreko web gunera igotzea (<https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/malen-defentsa>), "Formularioa" estekan sakatuz, ezarritako epemugan.

Ebaluazioa eta defentsa

Ikasturte bakoitzean ikasleak bi deialditara aurkezteko eskubidea du, **Maiatzean (1.deialdia), edo Ekainean (2.deialdia)**. Bestalde, praktikuma eta irakasgai guztiak gaindituta dituzten aurreko ikasturtetako ikasleek **urtarrileko ezohiko deialdi aurreratura** aurkezteko aukera izango dute (maiatzeko 1.deialdiaren aurrerapena da). Ikasturteko matrikula egin beharra dago.

Oinarrizko ebaluazio irizpideak ebaluazio dokumentuetan jasota daude (2. Eranskina eta 3. Eranskina). Honako hauek dira:

1. Eginiko lanaren kalitatea eta zuzentasun akademikoa (helburu argiak, edukiaren garrantzia, metodologia eta bibliografia egokiak, eta proposamenaren bideragarritasuna).
2. Berrikuntza konpromisoa edo, hala dagokionean, ikerketa konpromisoa (eragina irakaskuntza praktikan, berrikuntza/ikerketa orokortzeko aukera, originaltasuna).
3. Ikaslearen inplikazioa Lanean (masterreko gaien eta lanbide gaitasunen arteko lotura, lanbide proiektu pertsonala).
4. Aurkezpena eta defentsa epaimahaiaren aurrean (komunikazio trebetasunak, eta irakaskuntzarako gaitasun orokorrak).

Defentsa ekitaldi publikoa izango da, eta espezialitateari dagokion campusean egingo da.

Ikasleak 10-15 minutu izango ditu bere lana aurkezteko, eta ohiko ikus-entzunezko tresnak erabili ahal izango ditu. Defentsa saioak 30 minutu inguru iraungo du, eta 45 minututara luzatu ahal izango da.

MALa dagokion epaimahaiaren aurrean aurkeztuko da, ezarri zaion egunean. Ez bada dagozkion egunean eta moduan defendatzen, ezin izango da MALa gainditutzat eman.

Epaimahaiak hiru kide izango ditu, kontuan izanik hizkuntza gaitasuna, lanaren campuseko kokapena, eta gaia. MALaren zuzendaria ez da epaimahaiko kide izango.

- ✓ Bitartekoen arabera bideragarria denean, ikaslearen espezialitateko irakasleak izango dira epaimahaiko buru eta idazkari; aldiz, modulu generikoko irakasleak edo hurbileko espezialitateetako MAL zuzendariak izango dira epaimahaiko kideak.

Ikasleen defentsaren ondoren, kontuan izanik epaimahaikideek lan idatzien gainean duten iritzia eta zuzendariaren txostena, zenbakizko kalifikazioa emango zaie MALei, 0tik 10erako eskalaren arabera, hamartar bakarrarekin, eta dagokion kalifikazio kualitatiboa erantsiko da:

0,0-4,9 gutxi / 5,0-6,9 nahiko / 7,0-8,9 oso ongi / 9,0-10 bikain. Defentsa saioa amaitzean jakinaraziko da kalifikazioa, deliberazio epearen ondoren.

Suspentso jarritz gero lanari, epaimahaiak txostena helaraziko dio ikasleari, lana hobetu eta berriz ebaluatzera aurkezteko aholkuak adierazita. Zuzendariari txostenaren kopia bidaliko diote.

MALaren inguruko informazio guztia HEFA fakultateko web gunean aurkitu daiteke, esteka honetan: <https://www.ehu.eus/eu/web/hezkuntza-filosofia-antropologia-fakultatea/master-amaierako-lana-mal->